

## Liburuzaínak

ANGEL ERRO

Egunkari honetan agertu da Nafarroako liburuzaínen elkarteko presidenteari eginiko elkarritzeta. Elkarteak askotan salatu ditu Nafarroako Gobernuaren eta hainbat udalen jarrera ez demokratikoegiak (egunkari hau galaraztea, kasu), Unescoren liburutegi publikoen aldeko manifestua bezalakoak hizpidera ekarri: «Ez funtsek ez zerbitzuek ez dute inolako zentsura ideologiko, politiko edo erlijiosorik, ezta presio komertzialik ere, jasan beharko». Horri krisi ekonomikoaren aitzakia orozuritzalea gehituta.

ASNABIko presidenteak elkarritzetan salatzen zuen oztopo larriak ari zitzaizkiela liburuzaínei jartzen euskara ikasteko, baita eremu euskaldunean ere, non herritarrek, liburutegietako erabiltzaileek, zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea aitortua omen duten. Beste eskubide urraketa bat oharkabeen pasa daiteke. Liburuena. Haien zaintzaileek uler ditzaten. Aitortuko dut nerabe nintzela denboraldi batez saiatu nintzela nire maileguen bitartez liburuzaín bat nitaz maiteminarazten. Goi-arnasadun liburuak, nire gustuen zabala erakusten zutenak, keinu sotilak bidaltzen zizkionenak. Euskarazko liburuen bitartez liburuzaínak maiteminarazten saiatzeko herritar guztien eskubidea ere urratzen ari dira.